

XIPRI ARBELBIDE.—*Gerlako tresna bizidunak*. Euskal Literatura.  
Elkar. Donostia, 1986.

Eleberri honek Iruñeko Aurrezki Kutxa Municipalak 1986an antolatutako Xalbador Saria irabazia du.

Egilea, hamar urtez Algerian egona zen, gerletan parte hartuz, zeren adinak soldadu hartua bai zen. Orain, bere biziak eta ikusiak eleberri gisa kontatzen dizkigu, hango hilketak eta bortxakeriak erakutsiz, garai berean frantsez kazetariak erakutsi ez zuten bezala.

Aitortzen du toki izenak egiazkoak direla baina ekintzak ez direla esaten diren lekuetan gertatuak, zeren bestela norbaitzuk arriskioan jarriko bai zituen. Jende izenak, asmatuak, noski. Hala ere batzuk ezagugarri egingo zaizkio historia haiek bizi edo irakurri zituena. Horregatik, Algeriako historiaren zati bat da liburu hau, kontalari atsegin batek luma bizkorrez egina.

J.S.M.